

Javier Sánchez, XIX. Federico Martín Bahamonteseko bertako irabazlea:

“Lasterketa gogorra da, entrenatzean dago koska”

Maiatzaren 18an burutu zen aurtengo Federico Martín Bahamontes txirrindulari martxa. Aitor Hernándezek lortu zuen garaipena (3.19), baina profesionala denez, Javier Sánchez Txurruka ermuarrari egokitu zitzaion bertakoen lehen saria (3.25). Sailkapen orokorrean 8.a izan zen.

- Zertan datza proba hau?

130 kilometroko luzera du, eta tartean Milloiko, Etxegaraiko, Ixuako, Areitioko eta Trabakuko mendateak igo behar dira. Oso gogorra da.

- Eta zein da ondo ibiltzeko gakoa?

Asko entrenatzea eta lasterketaren bukaerarako indarrak gordetzen jakitea. Daukazu bizikletak ez du horrenbeste garrantzirik, pedalak ematean dago koska.

- Zenbat entrenatzen duzu?

Astean bost edo sei egun. Astegunetan, bi ordu eta erdi inguru; asteburuetan, lau ordu eta erdi edo bost ordu. Inguruko txirrindulari profesionalekin entrena-tzen dut: Amets Txurruka, Markel Irizar, Aitor Hernán-

dez... Eta afizionatuekin ere, Goikoetxea anaiekin esaterako. Neguan, gimnasia joaten naiz.

- Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak?

Hainbat lasterketatan parte hartuko dut: Covadonga-ko lakuak, Quebrantahuesos, Euskadi Extrem eta Ezkaraiko martxan. Aurretik, Monegroseko lasterketan egon naiz.

- Aurten ekin diezu horrelako lasterketei?

Ez, hiruzpalautan egin dut Quebrantahuesosa eta zenbaitetan aritu naiz Euskadi Extremen, Bahamontesen eta Pax Avant-en. Batzuk errepideko bizikletarekin egitekoak dira eta besteak mendiko bizikletarekin.

- Zein nahiago duzu?



Azkenaldian mendikoarekin ibiltzen naiz gehiago.

- Zenbat denbora daramazu txirrindularitzan?

Bizitza guztia. Lehen lehiatu egiten nuen, baina 20 urte inguru bete nituene-tik afizionatu gisa ibili naiz.

- Aitor Hernándezekin harreman estua duzu, ezta?

Bai, ziklokros-denboraldian (urritik urtarrilera) bere laguntzailea naiz. Gustura egiten dut.

Dorleta Vidal

Lasterketaren datuak

Ermuko Gaztela-Mantxako Zentroak antolatzen duen lasterketa hone-tan, Aitor Hernández izan zen garai-lea. Bere atzetik, Iñaki Aiarzabuena (3.21) eta laces Gisasola (3.22), hurrenez hurren. Guztira, 176 txirrindularik eman zuten izena, antolatzaileen arabera, tartean 3 neskek. Batek bukatu zuen proba: Paula Gomezek (4.30).



Caperos

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitar-tekoak

Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

Pub Dakota

Probaleku, z/g
Ermua (Bizkaia)
dakotaermua@hotmail.com

Pub SCORPIO

Zubiaurre, 21
ERMUA

OUTUMURO
Kafetegia

Kafe eta tarta bereziak
Aukera handia TE eta INFUSIOETAN

Astelehenetik ostiralera 9etan zabal-tzen dugu